

*La verdadera historia de Cleopatra, Rosa Cid.*

Ordu eta erdi irauten duen hitzaldi honetan, Rosa Cid historialariak figura historikoa den Cleopatraren bizitzaz mintzo da. Historian zehar Cleopatraren irudia maiz erabili izan da, zinema zein literaturan besteak beste, eta irudi irrealak sortu dute gizartearengan. Bere figura distortsionatu zutenak haren etsai politikoak izan ziren, kontrako propaganda zabaltzeko. Dokumentu historiko horiek dira gaur egun irakurtzen eta mundutik orokortzen direnak, hots, Cleopatraren irudi irrealak legitimatzen duten dokumentuak dira. Hasteko testuingurua ulertu behar da; Alejandro Magnoaren inperioa zabaltzen ari zelarik, bere kidea zen Ptolomeo Lagosek, greziar boteretsu batek, Egiptoren gaineko kontrola ezarri zuen, Ptolomeotarren dinastia hasiz. Egipto kultura anitzeko lekua zen horretan, helenismoa garatu zen, Mazedoniarren ezaugarria zela jakinez. Bertan, Alexandro Handiak "Alejandria" izeneko hiria sortu zuen, egun itsaso hondoan aurkitu dezakegun hiria dena, garaian gertatutako maremotoak eta tsunamiak dela medio. Hiriaren garrantzia nabaria zen, bere itsargia eta liburutegiarengatik, bere izaera jantzia nabarmentzen zen eta Alexandrok hiria maite zuen.

Ptolomeotarren dinastiarekin jarraituz, haien oihuturak bereziak ziren, hain zuzen, familia ziren elkarren arteko ezkontzak gauzatzen baitziren. Ondorioz, errege/erregina izateko, anai/arrebekin ezkondu behar ziren goberna zezaten. Hori bera Cleopatrari gertatu zitzaion, bere aita Ptolomeo Auletes hiltzean, bere ondorengoa zen Cleopatra bere anaia Ptolomeo XIII.rekin ezkondu behar izan zen. K.a 51.urtean 18 urte zituelarik eta Erromatar Inperioa hedatzen zelarik, Cleopatra Egiptoko erreginaren bihurtu egin zen. Aurkeztutako bere anaia, txikia eta inozoa zen, bere aholkulariek manipulatu zuten Cleopatraren gobernuaren kontra jotzeko. Gertaeraren ondorioa I. Gerra Zibila izan zen, "Gerra Alejandrina" deiturikoa. Zesar enperadore erromatarrek, Egiptoko lurraldeak berenganatu nahi zituen baina ez zen Ptolomeo XIII.alde jarri, aipatutako Ptolomeoren aholkulariek, Pompeio general erromatar erail zuten eta mesede bezala Zesarri haren burua eskaini zioten. Zesarrek ez zuen ongi ikusi egiptoar batzuk erromatar bat hil izana eta ez zen fido. Orduan, Cleopatrak estrategikoki, gertaerarekin zerikusia ez zuela esatean, Zesar haren alde jartzen da eta Gerra Zibila irabazten laguntzen du. Hortik aurrera, erlazio sentimental bati hasiera ematen diote eta Cesarion izeneko semea jaiotzen da, Zesarren seme biologiko bakarra izango zena. Zesar enperadorearen helburua Cleopatrarekin, Erromaren menpekotasuna adieraztea izan zen, Zesar Cleopatra menperatzen zuela erakutsiz. Sinbolismo horren bitartez, ekialdearen gaineko lurren kontrola zuela adierazten zen. K.a 44.urtean, Julio Zesar erailten dute eta Zesazidak zein Zesarren aldeko bandoak Cleopatrari laguntza eskatu zioten, erreginak aldez, jarrera neutroa izatea lortu zuen. Erailketa ostean, Octavio zen Zesarren ondorengoa (Cesarion ez zen Zesarren gustokoa), jarraian Triunviratoa, Octavio Augusto, Marco Antonio eta Lepido osatu zuten eta bakoitzak lurralde jakin baten kontrola hartu zuen. Ordurako, Cleopatra haren jatorri Greziarra alde batera utzi zuen eta Egipziar jainkosa bezala aurkeztu zuen bere burua (aurreko urteetan bere izaera Grekoa eta Egipziarra Afrodita eta Isis bezala deskribatzen zuten).

Octaviok, Erromatar Inperioaren gidaritzak hartu zuen eta senatuaren kontrola izanda, Erroman gelditu zen. Marco Antonio, ekialdeko lurraldeak lortzen saiatu zen, garaipen militarrek ospea eman diezaioten eta Erromatar Inperioan ospea lor zezan. Historia jarraituz, Marco Antonio eta Cleopatrak interes politikoak zituzten eta elkarren arteko hitzarmenak egiten hasi ziren. Jada erlazio estua lortu zuten eta elkar maitemindu zirenean, Erroman bere emaztea zen Fulviak, gerra piztu zuen Marco Antonioren itzulera eraginduz. Erroman gelditzen da eta bere emaztea hil egiten denean, Cleopatrarengana joan beharrean, beste emazte baten bila dihoa. Octavia, Octavioren arreba, bere emaztean bihurtuko da eta bi seme-alaba izanen ditu. Bigarren umea

jaiotzean Cleopatrak bizkien erditzea gauzatzen du. Marco Antonio bere egoera militarra zein politikoa ikusita, Egiptora bueltatzen da eta bertan gelditzen da bere heriotza arte. Octavia eta bere seme-alabak Erroman uzten ditu eta Octavio eta beraren arteko tentsioa handitzen joaten da. Marco Antonioren gainbehera politikoa hazten joaten da, Egiptoren babes militarra izan arren. Orduan, ``Alejandriako Hitzarmenak``izeneko gertaera ematen da, non Marco Antonioren testamentua irakurtzen duten. Testamentuan bere sentimendu Erromatarra deuseztatzen du, Alejandrian hilobiratua izan nahi zela erakutsiz eta horrek Octavioren haserrea pizten du; haserre horri gehitu behar zaio, Marco Antoniok bere testamentuan Zesarren egiazko ondorengoa zen Cesarion, enperadore legitimoztat hartzen duela, Octavioren boterea ukatuz. Azkenik, Marco Antonioren testamentuan, Octaviaren dibortzioa eskatzen du, Cleopatrarekin ezkondu ahal izateko. Arrazoiagatik guztiagatik, Octaviok gerra deklaritzen dio Marco Antoniori eta K.a 31 ``Actium`` izeneko gerra pizten da. Marco Antonio Egiptarren babesia izanda ere galtzen du eta azkenean hil egiten da. Esatekoa da, gure protagonista den Cleopatra ihes egiten duela eta bere buruaz beste egiteko plana antolatu zuen erromatarrek altxortzat hartu ez zezaten. Bere heriotzaz hainbat bertsio egon diren arren, Aspidoz kobraren ziztadaz bere buruaz beste egin zuen. Bere janzkera erregina batena izan zen, Cleopatra duintasuna erakutsi zuen azken momentura arte, esan dezakegu erregina bezala hil egin zela. Gertaerekin amaitzeko, Octaviok, Cesarion eta Marco Antonio eta Cleopatraren lehen semea erail zituen eta besteak erromara eraman zituen, erromatar hezkuntza jaso zezaten.

Cleopatraren irudia interes zehatzen arabera erabilia izan da. Bere historia erreala behin aztertuta, ondorio nagusia Cleopatraren benetako garrantzi historikoa da. Bere izena historiara pasa egin zen Octaviok berari buruz idatzi zuenetik, lehenengo unetik, historialari askok berari buruzko ikerketak egiten hasi ziren. Rosa Cid bere hitzaldian Virgilioren pasarteak deskribatzen ditu, zeinak Cleopatraren bizitza kontatu zuten edo Egiptoko erreginaren aztarna arkeologikoak daude, numastikaren kasuan, Cleopatraren irudia tetradrakmetan agertu ohi zen. Rosa Cid hizlariak, Suetonio historialariaren pasarteak erabiltzen ditu eta gertaeren azalpena emateko Ptolomeo II.a eta Arsinoe-ren urrezko txanponak adibide gisa erabiltzen ditu. Azken adibide hauekin, Cleopatrari buruzko interesa historialariengan nabarmentzen da. Esan dezakegu, erreginak irudi erromatar batetik edo irudi erreal batetik, jarraitzaileak eta ikerlariak izan dituela. Horri esker, bere benetako bizitza ezagutu ahal izan dugu eta bere mitoa apurtu ahal izan dugu.

Cleopatra, emakume ausarta, boteretsua, azkarra eta sentibera izan zen. Gizon baten menpe ez zen egon eta bere burua maneiatzen ez zuen utzi. Egipto kontrolatzen lortu zuen, Erromatarren interesetatik babesten saiatu zen. Erromatarren etsaia izan zen eta gizonak menperatzen zuten munduan, hark berebiziko garrantzia izan zuen. Boteretsuen bizitzen pasarte bat baino ez zela izan pentsatzearen, estrategia militarra eta politika lehensten zuen erregina dugu.

Cleopatra jantzia, intelektuala eta haren familiaren babeslea zen hura, historian itzala utzi zuen.

## *El mito de Cleopatra más allá de la historia. Rosa Cid.*

Octavio Augusto ``Actium``gerra irabazi ostean, Cleopatrari buruz idazten hasten da, Augustoren interesen arabera irudi zehatza emanez. Aipaturiko irudia, historian zehar erabilia izan da, hala nola, Shakespeare edo Erdi Aroko elizak berari buruz idatzi zuten. Artean eta zineman bere pertsonaia irudikatu egin da; gero azalduko dudan ``femme fatale`` erabiliz. Cleopatrari buruzko iritziak zein iturriak asko izan arren, jatorriz berari buruzko irudi berdina ematen da.

Augustoren etsaia Marko Antonio izan zen, Cleopatraren figura Marko Antonioren pertsona desorekatzeko balio izan du. Marko Antonio Cleopatrarekin ezkontzean, ekialdeko irudi deszibilizatuaren parte izaten hasten da. Erromatar ohituraren kontra zihoan horrek, Octaviori erabilgarri izan zitzaion bere etsaiaren kontrako politika egiteko. Augustoren aldeko poetek, ekialdeko lurren gaineko irudia distortsionatu zuten, Erromatarren ausardia handi zezan. Poeta horien artean, Lucano, Horazio eta Virgilio aurki ditzakegu. Azkeneko honek, paralelismo bat sortu zuen bere obra zen ``Eneida``-n. Eneas, Marko Antonioren irudia zen eta Dido, Cleopatraren isla. Bikoteak maitasun erlazioa behin hasiz, Eneasek bere betebeharra lehensten du eta Dido uzten du; Octaviok bere emozioak alde batera uzten duen Eneasen irudikapena da, zuzentasunaren eta betebeharraren isla. Aipatu beharra dago, herri judutarrak Cleopatraren kontrako iritzia zuela eta Flavio Josefo Octavioren politikaren kontra egon arren, Cleopatrari buruzko irudi desegokia elikatu zuen. Azkenik, Octaviok ez zituen Marko Antonio eta Cleopatraren irudirik jarri; euren figura gehio manipulaztea ahalbidetzen baitzuen.

Elizak, lehen aipatu legez, Cleopatrari buruzko idazkiak egin zituen. Kristauek irudi adulteriogilea eman zuten. Tertuliano (155-220) salbuespena izanda, Cleopatraren buru-hilketa martirien eredia izan zezakela proposatu zuen. Beste alde batetik, San Agustin (354-430) bere buru-hilketa kritikatzeko du ``Jainkoak bakoitzaren heriotzaren aldia erabakitzen duelako``.

Erdi Aroan, Octaviok emandako ekialdeko eta Cleopatrari buruzko iritzia, indarrean jarraitzen du eta Boccaciok Cleopatrari buruz idazten du: krudelkeria, zekenkeria eta lizunkeria, leporatuz. Garai berdinean, Chaucerrek beste interpretazio bat idazten du, Cleopatra emakume sentiberatza eta maitaletza hartuz.

Berpizkundean, Cleopatraren iritzia indarrean jarraitzen du. Arrazoia gorensten den garai horretan, Octavioren iritzia garaira moldatzen da eta Cleopatra ``irrazionaltasunaren`` eredia bilakatzen da. Shakespeare XVI.mendean, Plutarcoren testuak irakurtzen ditu, bere obra testuinguratzeko. Plutarco eta Shakespearen lanak antzekotasunak dituzte; amankomunean Marko Antonio eta Cleopatraren maitasunaren zorigaitza idazten dute. 1722.urtean, Jean Francois Marmontel, Cleopatrari buruz idazten du eta XVIII.mendea izan arren, Octavioren Cleopatraren gaineko iritzia, oinarri gisa izaten jarraitzen du. Nahiz eta urteak pasa, Cleopatraren irudi Erromatarra indarrean jarraitzen duela ondoriozta dezakegu; Cleopatraren irudi lizuna, erakargarria, exotikoa...jarraitzen du.

Arteari dagokionez, Cleopatra maiz irudikatu izan da. Adibideak jartzearren, Andrea Casalik 1720.ean Marko Antonio eta Cleopatra irudikatzen ditu edo Peeter Sionek bikotea irudikatu zuen. XIX.mendean, Ekialdera hainbat bidai egiten dira eta mundu

ezezaguna eta misteriotsu gisa deskribatzen dute mendebaldeko herrialdeek. Ekialdeko exotismoa eta misterioa errepresentatzeko, Cleopatraren irudi "femme fatale"(halabeharrezko emakumea) erabiltzen da. Henry Rider Haggard (1854-1925) Cleopatrari buruz idatzi zuen eta berari buruzko "La atracción de la mujer fatal" sustatu zuen. Aipatutako "femme fatale" artean irudikatu egin zen, besteak beste, A. Cabanell 1887 "Cleopatra pozoina dastatzen" egin zuen edo Jean-Leon Geromek "Ekialdeko emakumea" irudikatu zuen.

Esan beharra dago, Erdi Arotik Cleopatraren buru-hilketa irudikatzea gustatu egin dela. Sinbolikoki gertaera historiko horrek, bere porrotaren irudikapena izan baita. Bere suizidioa gai literario, artistiko...gisa erakarri izan du: Guido Remiren lana 1640.koa, Artemisia Gentileschiren lana...

Bukatzeko, Cleopatraren irudia zineman asko gailendu da: XX.mendean Cleopatraren figura are gehiago pertsonifikatuko da zinemaren bidez. Zineman, literaturan eta artean bezala, Cleopatraren irudia eta jarrera, historikoki errepresentatu egin dena da. Octavioren iritzia historikoki bizirautea lortu du; zinema, idatziak, artea, literatura...istorioak kontatzen ditu baina historia ez du bere osotasunean errepresentatzen. 1.pelikula, Theda Barak antzeztutako Cleopatra izan zen, aktorea sinbolikoki Cleopatraren izaera irudikatzen du; Theda Bara emakume haustzailea zen eta bere izaera zentzu askotan, bat egiten du Cleopatraren irudiarekin. 2.pelikula bat egin zen, 1934.an Cleopatraren papera Claudette Colbert antzezten du eta emagaldu gisa agertzen da. Jarraitzeko, 3.pelikula bat aipatuko dut: 1945.ean, Cesar eta Cleopatra izendatutakoa. Gabriel Pascalek, Cleopatraren irudi inozo eta Cesarren menpekoea aurkitzen da eta aktorea beste sentsazio bat transmititzen du: sumisioa. Azkenik, ezaguneretarikoena Mankiewicz-en "Cleopatra" (1963) dugu. Zuzentzaileak, Plutarco eta Shakespearen obrak ezagutzen ditu eta pelikulan protagonistaren irudia jatorra eta errespetagarria da. Emagalduaren irudia alde batera uzten du eta Cleopatraren intelgentzia erakusten du.

Bukatu aurretik, Francois Xenaquis (1986) Cleopatrari buruzko idatzia egin zuen eta bertan errespetuz irudikatu zuen: bere suizidioa deskribatzen du eta Cleopatra erregina gisa kokatzen du, ez biluzik, ez koroarik gabe. Xenaquisen ustez Cleopatra gerra galdu arren, Octavio irabazi izan du, mundo osoan ezaguna egin delako eta bere historia behar bezala aztertu delako.

Belate Amondarain Casado.